

ADIERAZPENA

Euskadiko basogintza sektorearen alde

Eusko Jurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, nekazal lanbide hezkuntzako Fraisoro Eskolak, Baskegurrek, Basoa Fundazioak eta Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundeak, zeinak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko basojabeen elkarteak biltzen dituen, ondorengo adierazpena egitea adostu dute. Honen bitartez, publikoki aitortzen dute basogintza jasangari eta aktibo batek gure egunerokoan jokatzen duen paper garrantzitsua, bai lehen sektorean eta baita ere gizarte guztian:

1. Baso-sartzearen, baso-berritzearen eta Euskadiko basogintza-ondarearen protagonistak

Baso-jabeak funtsezkoak izan dira gaur egun ezagutzen dugun Euskadi berdea eraikitzen. XX. mendearen hasieran, Gipuzkoako eta Bizkaiko basoen azalera lurralde horien guztien % 25 baino ez zuen betetzen; eta ondoren lortu dugun baso-ondare handitzea, gaur egun % 55era iritsi arte, baserriari eta lehen sektoreari lotutako milaka lagun horien basoberritze ahalegin handiari esker izan da posible.

2. Gizartea kontzientziaztea eta baso-jarduera uzteari aurre egitea

Gure basoen aniztasuna eta eskaini diezaguketen ekoizpen-, paisaia- eta babes-potentziala izugarri handiak dira. Baso-jabetza motibatu behar dugu bere inbertsioa eta dedikazioa basoen kudeaketa jasangarri, errentagarri, kalitatezko eta berritzaile baterantz bidera dezan. Gizartea bidelagun behar dugu baso-jarduera bertan behera geratzea saihesteko; gizarte-ulermena eta babes oso garrantzitsua da. Belaunaldien arteko erreleboa bermatzea eta etorkizunean gure mendiak modu aktibo eta jasangarrian kudeatzen dituzten baso-kudeatzaileak behar ditugu.

3. Landa-eremuak bultzatzea eta tokiko administrazio txikiei laguntzea

Biodibertsitatea hobetzeaz gain, sute arriskua murrizteaz gain eta ekosistema hauek gizarte osoari eskaintzen dizkieten ingurumen-zerbitzuez gain, basoak gure herrialdean errotutako enplegu-iturri egonkor izan daitezke eta izan behar dute. Horrek guztion bizi-kalitatea hobetzen lagunduko luke, batez ere landa-inguruneetan, eta gure erresilientzia klima-aldaketaren aurrean ere bai.

4. Klima-aldaketari aurre egiteko tresna

Basogintza-sektoreak modu aktiboan laguntzen du Euskal Autonomia Erkidegoko 2050eko Klima Aldaketa Estrategia gauzatzeko. Plan horrek gure herrialdearen karbono-hustubide ahalmena handitzea bilatzen du; eta horrekin batera, Euskadiko berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, 'Basque Green Deal' itunarekin bat eginez.

5. Baso-kudeaketa jasangarriaren aldeko apustua

Euskadiko azalera osoaren % 55 zuhaitzez estalita dago, eta horrek Europako baso-ratio handienetariko bat duen eskualdeen artean kokatzen gaitu. Horretarako, Basogintza Kudeaketa Jasangarriaren kultura gure egunerokoan txertatu dugu, era horretan bermatuz landaketa eta baso-kudeaketen ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-jasangarritasuna.

6. Zero kilometroko politikak

Basoek industriarako hurbiltasun eta kalitateko lehengaiak eskaintzen dizkigute. Kontuan izan behar dugu, gainera, zuraren euskal industria % 70ean 'Zero kilometro'ko produktuez hornitzen dela.

7. Bioekonomiaren, ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustua

Basogintza eta zuraren sektorean berrikuntzarako aukera asko daude; merkatuan aukera berriak daude eta baita ere baso-sistemak jasaten ari diren aldaketak hobeto kudeatzeko garaiak: azalera handitzea, dibertsitate genetikoa sustatzea edo zuhaitzek ekosistemetan sortzen dituzten elkarrekintzak indartzea funtsezkoa da klima-aldaketaren aurrean erresilienteak diren basoak lortzeko.

8. Baso-zuraren sektoreak euskal gizarteari egindako ekarpena

Zuraren industriaren ekarpenarekin eta ingurumen zerbitzuen balorazioarekin batera, nabarmentzekoa da baso-kudeatzaileen eta -ekoizleen ekarpena ere. Sektoreak % 1,5 inguruko ekarpena egiten dio Euskadiko BPGri. Horrez gain, basogintza eta zuraren balio-kateak zuzeneko eta zeharkako 20.000 lanpostu inguru sortzen ditu. Eta hauei lotutako ingurumen-zerbitzuek sortzen dituzten lanpostuak ere kontuan hartzen baditugu, Euskal Autonomia Erkidegoko enpleguaren % 2,4 ingurura irits daitezke.

9. Basogintzarekin lotutako lanbide hezkuntza eta gizarte-hezkuntzaren alde egitea

Lanbide heziketako eskolei bultzada ematea funtsezkoa da; izan ere, gure basoen kudeaketa jasangarria egingo duten profesionalen heziketa hor ematen baita.

Horrez gain, herritarrak basoen kudeaketa jasangarriaren premia ulertzeko gizarte-hezkuntza oso garrantzitsua da. Baita basoaren funtzio-aniztasuna uler dezaten, bai ekoiztera bideratutako mendietan, zein natur-babeserako mendietan.